



## OREDAINGO UDALEKO GIZARTE LANGILE LANPOSTUA EGONKORTZEKO EPAI MAHAIAREN BEHIN BEHINEKO BALORAZIOA

Orendainen, 2023ko maiatzaren 3an,

Bildurik,

Iñaki Eskisabel Zurututza Jauna, lehendakaria,

Izaro Gurrutxaga Auzmendi Andrea, epai mahaikidea

Jon Karrera Jauregi Jauna, epai mahaikidea

Martin Iparraguirre Mujika Jauna, epai mahaikidea

Idazkaria:

Nekane Lopetedi Etxeberria, Orendaingo udaleko idazkari kontuhartzailea.

### Kontutan hartuaz:

**Lehena.**-2022ko abenduaren 21eko Osoko Bilkuran, 2022ko enplegua publiko eskaintzea egitea onartu zen, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera eta 2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen eta Estaduko Aldizkari Ofizialean, 2023ko otsailaren 22an.

**Bigarrena.**-Hautaketa prozesu horretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta Epaimahai Kalifikatzailearen osaera onartu zen eta 2023eko apirilaren 14eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen.

**Hirugarrena.**-Alegazioak aurkezteko epea iragan ondoren, eta alegaziorik ez da jaso.

**Laugarrena.**-Epaimahaiak, gizarte langile lanpostua egonkortzeko eskatzen ziren baldintzak hauek zirela:

Baldintza orokorrak: Derrigorrezko gizarte langile titulua izatea eta 3.hizkuntz eskakizuna beteta izatea.

Baldintza espezifikoak:



- Administrazioak esperientzia gizarte langile lanetan 0,33 puntu hileko.
- Orendaingo udalean gizarte langile lana egin izana 0,11 puntu hileko.
- Gizarte eta hezkuntzako 80 orduko ikastaroa izatea 7 puntu.
- Emakumeen aurkako indarkeria 85 ordukoa gutxieenz izatea 8 puntu.
- Gidatzeko baimena izatea 5 puntu

Guzti hau kontutan hartuta, epai mahaikidekek ERABAKI DUTE:

LEHENA .-Epai mahaikideek, aurkeztutako merituak gain begiratu eta aztertu ondoren , erantsitako agirian ikusten den bezala, hautagai bakoitzari bere puntuazioa ematea.

BIGARRENA.-Epai mahaiak emandako behin behineko puntuazioa, Orendaingo udaleko web orrialdean argitara emango da eta hamar lan egunetan puntuazioa aztertzeko aukera izango da , eta dagokion erreklamazioa aurkezteko, hala bada.

HIRUGARRENA.-Denboraldi honetan alegaziorik aurkeztu ezean, behin behineko balorazioa behin betikotzat emango da eta Orendaingo alkateari, puntuazioaren arabera zerrenda ordenatuta aurkeztuko zaio.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat ematen da.